

2014ko MAIATZAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **9 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko maiatzaren 28an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Juan Luis Illarramendi Roteta jn.

Bertaratutako zinegotziak Eider Illarramendi Azkue and.
Jabier Etxaburu Elu jn.
Karmele Alberdi Linazasoro and.
Iñaki Eizagirre Eizagirre jn.
Alizia Osa Otxandorena and.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ane Eizmendi Alberdi and.
Gari Berasaluze Ostolaza jn.
Imanol Lasa Zeberio jn.
Maite Garrastazu Aranguren and.
Maribel Albizu Barrenetxea and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Ixidor Larrañaga Aierbe jn.
Jesus Arana Gomez jn.
Patxi Elola Azpeitia jn.
Gloria Vazquez Herranz and.
Irma Domingorena Zampirain and.
Mariana Aranburu Garate and.
Aser Lertxundi Manterola jn.
M^a Jose Lafuente Grasa and.

Idazkaria Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) 2014ko apirilaren 28koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2014ko apirilaren 30ekoa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko apirilaren 28tik maiatzaren 23ra

Segidan, Alkatetzak 2014ko apirilaren 28tik maiatzaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko apirilaren 25etik maiatzaren 9ra

Era berean, Tokiko Gobernu 2014ko apirilaren 25etik maiatzaren 9ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- KONTU-HARTZAILTZAREN TXOSTENA: AURREKONTU EGONKORTASUNEN HELBURUARI BURUZ, ONARTU BERRI DIREN KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEEN ONDORIOZ

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaio Kontu-hartzailtzak 2014ko maiatzaren 9an egindako txostena, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, hain zuzen ere, Udalak eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoak onartu berri dituzten kreditu aldaketarako espedienteen ondorioz egin beharrekoa zena.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- ZARAUZKO MUTXIO PARKEAN DAGOEN KANTINAREN ZERBITZUA USTIATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA

Udalbatzarrak, 2014ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen ZARAUZKO MUTXIO PARKEAN DAGOEN KANTINAREN ZERBITZUA ustiatzeko klausula agiriak onartzea eta deialdia egitea.

Deialdiaren iragarkia 2014ko martxoaren 21ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (55 zk.), eta eskaintzak aurkezteko epea 2014ko apirilaren 7an bukatu zen.

Epe horretan, honako hauek aurkeztu zuten euren eskaintza:

- Iker Irazusta Torno
- Xanti Irazusta Torno
- Ainoa Irazusta Torno

Kontratazio-mahaiak, 2014ko maiatzaren 14an egindako bileran, proposatu zuen kontratua Iker Irazusta Torno jaunari esleitzea, harena baita, osotasunean, eskaintzarik onena.

Udalerrri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- IKER IRAZUSTA TORNO jaunari esleitzea ZARAUZKO MUTXIO PARKEAN DAGOEN KANTINAREN ZERBITZUA ustiatzeko kontratua, eskainitako urteko 5.766,00 euroko prezioan.

Kanon horren ordeztu, esleipendunak urtero inbertsioak egin ahal izango ditu, bai kantinan bertan bai eta gainerako instalazio eta azaleretan ere. Inbertsio horiek guztiak Zarauzko Udalaren jabetzakoak izango dira.

Kantinan eta gainerako instalazioetan egiten diren hobekuntza-lan guztiak Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako departamentuak ikuskatuko ditu; era berean, departamentu horrek emango ditu ontzat, urtero, urriaren 1a baino lehenago esleipendunak aurkezten dituen faktura guztiak, kanonaren ordainetan onartzeko.

Bigarrena.- Iker Irazusta Torno jaunak esleipenari uko eginez gero, Udalak beste esleipen bat egingo du, lehenengoaren atzetik datorren lizitatzaillearen alde, horien eskaintzak sailkatuta gelditu diren hurrenkeraren arabera:

- Xanti Irazusta Torno
- Ainoa Irazusta Torno

Tokiko Gobernu Batzarrari ematea horretarako eskuordetza: kontratuaren indarraldian dagokion erabakia har dezan, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Kontratuak 5 urteko iraupena izango du. Hala ere, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute, kontratua luzatu ahal izango da; kasu horretan, iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da hamar urtetik gorakoa izan.

Aldereren batek kontratua amaitu nahi izanez gero, beste aldeari adierazi beharko dio, kontratua bera edo luzapenak amaitu baino gutxienez 3 hilabete lehenago.

Epe hori edo luzapenak bukatu ondoren, kontratua automatikoki bukatuko da, eta esleipendunak zerbitzua emateari utziko dio.

Laugarrena.- Esleipendunak ondoren zehaztutako baldintzei buruzko frogagiriak aurkeztuko ditu, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak, proposamenarekin aurkeztu ez badira; baita, egonez gero, kontratua gauzatzeko hitz emandako bitartekoak eskura dituela egiaztatze dokumentuak ere.
- Publizitate ofiziala egiteko gastuak ordaindu izana: 593,62 €.
- Behin betiko bermea jarri izana: 2.500,00 eurokoa.
- 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia.

Bosgarrena.- Behin-behineko fidantza itzultzea esleipendun izan ez diren eskaintzaileei.

Esleipenari uko eginez gero, hurrengo eskaintza onena egin duenari egingo zaio esleipena. Dena den, uko egiten duenari ez zaio fidantza itzuliko.

Seigarrena.- Esleipendunak beteko ditu administrazio-klausulen agiriko IV. Eranskinean ezarritako baldintzak, kantina berriro ireki eta ustiatzeari dagokionez. Baldintza horiek akordio honen jakinarazpenari erantsiko zaizkio.

5.- ANBULATORIO ZAHARRA ITZULTZEKO ESKAERA GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINNTZA OROKORRARI

Udalbatzarrak 1977ko maiatzaren 6an egindako osoko bilkuran hartu zuen erabakiaren bidez, Udalak orduko Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalari 1.792 m² azalerako lurra laga zion, doan, Aritzatalde izeneko zonan, bertan, Gisarte Segurantzako kontsultategi bat eta Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalaren Eskualdeko Agentzia eraikitzeko.

Lur horretan egindako eraikinaren zati bat osasun-zentro gisa erabili zuten, harik eta Eskualdeko Osasun Zentro berria eraiki zen arte. Izan ere, Udalbatzarrak, 2003ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen 29. sektoreko – Salbide – E-2 eta F partzelen doako lagapena egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari; eta horren arabera eraikitako Eskualdeko Osasun Zentro berria 2008ko ekainean jarri zen martxan.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioz, osasun zerbitzu hura instalazio berrietara lekualdatu eta gero, zati bati kendu egin zitzaion lagapena

arrazoitu zuen xederako erabilera. Eraikinaren beste zati bat, aldiz, Gizarte Segurantzaren bulego gisa erabiltzen jarraitu zuten.

Egoera horren aurrean, eta kontuan hartuta Udal honek eskaintzen dituen zerbitzuak zabaltzeko premia zuela, Udala harremanetan jarri zen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzarekin, hura baitzen bere garaian lagatako ondasunaren titularra. Ondoren, 2010eko irailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen formalki bukatutzat ematea 1977an erabakitako doako lagapena.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak aipatutako erabaki hura errekurritu zuen, 225/2010 zk.ko administrazio-auzi gaietako errekurtsioan. 2012ko irailaren 3an, Donostiako Administrazio Auzi Gaietako 1. epaitegiak, 186/2012 epaian, errekurtsioa onartu zuen, udal jarduna egokia izan ez zela argudiatuta, eta erabakia baliogabetu eta bertan behera utzi zuen.

Epai hori berretsi egin zuen EAEko Auzitegi Nagusiak, 867/2012 apelazio errekurtsioan emandako 582/2013 epaiaren bitartez. Epaiak ondorioztatzen du erakunde kudeatzailea dela, alde aurretik bidezko espedientea tramitatu eta gero, baldintza bete den ala ez eta, hala badagokio, itzultzeari buruz erabakiko duena.

Higiezina –Gizarte Segurantzaren bulegoa izan ezik– erabiltzen ez zutela eta, Udalak bilerak egin zituen: otsailaren 24an, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko zuzendariarekin eta, martxoaren 20an, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko (INSS) probintziako zuzendariarekin.

Nolanahi ere, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eraikinaren zati bat itzultzearen alde prest dagoela adierazi duenez, ikusita bai Udaleko idazkari nagusiak egin duen txostena bai Koordinazio informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari honako hau eskatzea: osasun zentroak Aritzbatalden erabili zuen lurraren doako lagapenaren zati bat bukatzeko eta, halaber, lur hura eta higiezina Zarauzko Udalari itzultzeko, alde aurretik Gizarte Segurantzaren bulegoak gaur egun erabiltzen duen partzela bananduta.”

6.- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA: INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO

Ogasun eta Finantza Departamentuentzat eta udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoa dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik beharko. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko.”

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

“1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....

d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

.....”

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzan-hitzarmenaren eredia, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aurrekoa kontuan hartuta, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren artean lankidetzan-hitzarmena sinatzea, informazioa elkarri lagatzeko, otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduaren bidez onartutako ereduaren arabera.

1. Udalak Ogasun eta Finantza Departamentuari eman beharreko informazioa:
 - A-1 eranskina. Biztanleen erroldako datuak.
 - A-2 eranskina. OHZren errekaruaren kudeaketatik eratorritako duguak, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua ez denean.
 - A-3 eranskina. Obra lizentzien datuak
 - A-4 eranskina. Ibilgailuen erroldako datuak..
2. Ogasun eta Finantza Departamentuak Zarauzko Udalari eman beharreko informazioa:
 - D-1 eranskina. Diru-laguntzak. Zerga obligazioak betetzea.
 - D-3 eranskina. Gizarte Zerbitzuetarako zerga informazioa.
 - D-4 eranskina. Zerga-bilketa arlorako zerga informazioa.
 - D-5 eranskina. Babes ofizialeko etxebizitzak kudeatu, sustatu eta esleitzeko zerga informazioa.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea, Zarauzko Udalaren izenean eta ordezkartzan, aipatu hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiriaren bidez, eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidatzea, alkate jaunak sinatuta.

7.- EKAINEKO ETA ABENDUKO OHIKO OSOKO BILKURAK EGITEKO EGUNA ALDATZEA

2011ko uztailaren 18an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen, besteak beste, Udalbatzarraren ohiko osoko bilkurak hilean behin egitea, hilaren azken asteazkenean hain zuzen; halaber, finkatutako egunen bat jaiegun izanez gero, haren aurreko edo hurrengo lanegunean egitea.

Udalbatzarra da bere osoko bilkuren maiztasuna finkatzeko, eta hala dagokionean, aldatzeko organo eskuduna; eta hori apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak (22.d) artikuluan), azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak (38. artikuluan) eta udal Erregelamendu Organikoak (29.2 artikuluan) xedatzen dutenaren arabera.

Alkateak proposatuta, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Ekaineko eta abenduko ohiko osoko bilkurak egiteko eguna aldatzea eta egun hauetan egitea, hurrenez hurren: ekainaren 18an eta abenduaren 17an.

8.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek: Salberdin

Ondoren, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

GAIA: Salberdin

ZIOA

2011ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran. Zarauzko Udalbatzarrak behinbetiko onarpena eman zion Salberdin 10-2-OR eremuko Hirigintza Antolakuntzarako Plan Bereziari, Zarauzko Udaleko Korporazioaren ekimenez.

2011ko maiatzaren 26an, berriz, Zarauzko Udalak behin-betiko onartu duen Urbanizatzeko Jarduera Programa (UJP). Mozio hau sinatzen dugun alderdiok ez dakigu egungo Udal Gobernuak, azken hiru urteotan, tramiterik egin duen aurreko Korporazioak hasitako eremuko garapen urbanistikoarekin jarraitzeko. Ez dakigu, ez zaigulako inolako argibiderik edo informaziorik eman.

Bere jarduera eremu honetan duten zenbait enpresari, lurjabe eta biralokatzeko eskubidea duten etxebizitza jabe gugana etorri izan dira, praktikan geldiarazita dagoen prozesu urbanistikoa bultzatu beharra dagoela azalduz.

Kontuan harturik onartutako UJPn aurreikusitako epeak eta exekuzio faseak zaharkiturik gelditu direla Udal Gobernuaren ekimen falta dela-eta, mozio hau sinatzen dugunok zera exijitu nahi dugu:

MOZIOA

Premiazkoa dela iritzita, Zarauzko Udalak Salberdin 10-2-OR eremuko garapen urbanistikoari berrekingo dio, obrekin ahal bezain laster hasteko beharrezkoak diren dokumentu guztien erredakzioarekin hasita. Ildo horretan, ezinbestekoa da UJP berrikustea, epe eta fase berrietara eguneratuz, eta eremuko urbanizazio eta birpartzelazio proiektuak erredaktatzea.

Bozketan jarrita, aho batez, transkribatutako proposamena onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

b) PSE-EE taldeak: Nafarroa kaleko errotondako zuhaitzak

Hurrena, PSE-EE UDAL taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Hona hemen mozioa:

“Zarauzko Udal gobernuak Nafarroa kalean errotonda bat egitea dekretuz erabaki du. PSE-EE Udal taldeak erabaki horrekiko desadostasuna adierazi du, argi eta garbi. Gure taldearen iritzian ez ditu trafiko arazoak konponduko eta onartezinak dira erabilitako formak, ikuspuntu politikotik.

Baina, horrez gain, salatu dugu baita parke baten txikizioa eta 32 zuhaitz moztu izana ere.

Gure PGOU-k honako hau esaten du: *“El arbolado existente en el espacio público, aunque no hay sido calificado como zona verde, deberá ser protegido y conservado” (Anejo al Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental del PGOUZ).*

Inpaktu hori gutxienekoa izateko zuzenketa neurriak hratzea zentzuduna eta erraza zen. Zuhaitz moztu ordez, lekuz aldatzea posiblea baitzen, Zarauzko Udaleko baliabideekin, hain zuzen ere. Moztutako zuhaitz horiek balioa zuten, balioa ekonomikoa baita ere. Horiek jada galdu ditugu, baina posiblea da oraindik zuzenketa bat egitea. Asmo horrekin ondorengo mozioa aurkezten dugu:

MOZIOA

Zarauzko Udaleko Udaltzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio 32 zuhaitz landatzea Nafarroa kalean moztutakoak ordezkatzeko. Horretarako, ingurumen teknikariak txosten bat prestatuko du irtenbiderik onena emateko eta lorezaintza zerbitzuarekin koordinatuko da helburu hau gauzatu ahal izateko.”

Udaltzarrak, aho batez, transkribatutako proposamena onartzea ERABAKI DU.

c) PSE-EE taldeak: Urola Kostako Udal Elkarte

Azkenik, Urola Kostako Udal Elkarteari buruz PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du idazkariak. Honela dio:

"Urola Kostako Udal Elkartearen legealdi honetako ibilbidea iluna eta eraginik gabekoa da. Bere eginkizunak funtsezkoak dira Udal elkarte sortzen duten Udaletarako. Zarautzek, hain zuzen ere, pisurik handiena du Udal Elkartean.

Gure Udalak zarautzarron dirua ematen dio Udal Elkarteari proiektuak eta eginkizunak garatzeko. Besteak beste, zaboregia eta hondakinen jasoketa kudeatu behar du eta enplegu eta ekonomiaren garapena bultzatzeko ardura dauka.

Dena den, 2 urte darama aurrekonturik aurkeztu ezinik eta asanblada orokorraren deiarik egin gabe. Estatutuen arabera, Asanblada Orokorra urtean behin bildu behar da eta Zuzendaritza Batzordea 2 hilabete behin gutxienez, baina ez dute betetzen.

Hau ikusita, nabaria da gardentasun falta izugarria dela Bilduren Udal Elkartearen gobernu honetan.

MOZIOA

Zarauzko Udaleko Udaltzarrak Urola Kostako Udal Elkarteari eskatzen dio 2014ko aurrekontuak onartzeko prozesua garatzea, Asanblada Orokorra deitzea eta Estatutuek esaten dutena betetzea.”

Udaltzarrak, aho batez, transkribatutako proposamena onartzea ERABAKI DU.

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA, eta Udaltzarraren gehiengoak presazkotzat hartu ondoren, ondoko gaia aztertu dute:

– EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: PONTARLIERREKIKO ZARAUZTAR ORDEZKARITZA

Ondoren, Pontalierrekiko zarauztar ordezkartzaren inguruan EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

GAIA: Pontalierrekiko zarauztar ordezkartza

ZIOA

Denok dakigunez, 20 urte bete dira aurten Zarautz eta Pontarlier senidetu zirenetik. Urteurrena ospatzeko, Zarauzko ordezkartza bat Frantziako herri honetan izan zen, hainbat ekitalditan parte hartuz.

Ospakizunen harira, Zarauzko Kultura zinegotziak adierazpen hauek egin zituen *Urola Kostako Hitza* egunkariko edizio jarraituan, hilaren 20an:

“Pontalierrekoei aurreko urteetan saldu dieten Zarauzko irudia ez da guk nahi genukeena. Herrira sartu besterik ez dago bandera espainiarrak zintzilika ikusi eta Zarautz Pays Basque espagnol bezala irudikatzen dutela konturatzeko”.

Gertakari hau larritzat jotzen du gure Udal taldeak, eta horrenbestez urjentziaz mozio hau aurkeztea erabaki du:

MOZIOA

- Zarauzko Kultura zinegotziak Zarautz eta Pontalierren arteko senidetzearen 20. urteurreneko ospakizunetan egindakon adierazpenak arbuiatu nahi ditugu, errespetu falta larria direla iritzita. Errespetu falta herri honek izan dituen alkateei, Imanol Muruarekin hasi eta Jon Urienekin bukatu. Errespetu falta herri hau ordezkatu izan duten zinegotzietan. Eta, batik-bat, errespetu falta Zarautz eta Pontalierren harremanen eta elkartrukeen barruan parte hartu duten ikasle, irakasle, eskoletako ordezkari, eta finean herritar guztiei.
- Onartezina eta tokiz kanpoko iruditzen zaigu herri oso bat ordezkatzeko duen zinegotzi batek, ekitaldi instituzional batean asmo txarrez herritar eta herri-ordezkari askoren irudiari min egitea. Horiei guztiei gure babesa adierazi nahi diegu.
- Zarautz herri anitza da, eta aniztasun hori normaltasunez transmititu da kanpoan izan duen herri-ordezkartzan. Ideia eta sentsibilitate ugari daude gurean, eta denek merezi behar dute gure errespetua, errespeturik gabe ezinezkoa delako elkarbizitza. Ordezkari politikoon egiteko arazoak konpontzen laguntzea da, ez arazo berriak sortu edo baditugunak areagotzea.
- Zarautz beti nabarmendu da giza-eskubide guztien defentsagatik, eta ildo horretan, gure herriak bakean eta askatasunean bizitzeko, eta bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea aldarrikatu nahi dugu.

Proposamena bozketara jarrita, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa atzera botatzea ERABAKI DU, gehiengoz, Udalbatzarrak.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak hoge gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.